

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2013ko EKAINAREN 6an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2013ko ekainaren 6an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: *Gotzon Jauregi Sarasola*
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin


Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - **2013ko maiatzaren 9an egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo Babestxulo etxearen fatxadak margotzeko obra baimena eskaera, J.I.E.**
- 4. Larraulgo Urraitz etxearen iparraldeko fatxada eraberritzeko baimena eskaera, E.A.**
- 5. J.M.I.jaunak aurkezturiko idatziaren azterketa, hala bada.**
- 6. Tolosaldea Garatzen 2013 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 7. Olatza baserriko baratzean 3 negutegi jartzeko obra baimena eskaera, I.S.**
- 8. Olatza baserriko lurretan dagoen pabiloia egokitzeko obra baimena eskaera, I.S.**
- 9. Fakturak eta ordainketak.**
- 10. Beste batzuk.**
- 11. Erregu, galderak eta mozioak.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- 2013 urteko maiatzaren 9ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

08/2013 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 23koa, J.M.M. jaunari Larraulgo Udaleko herri langilearen ordezkapena egiteko lan kontratua egitea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO BABESTXULO ETXEAREN FATXADAK MARGOTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.I.E.

Ikusirik J.I.E. jaunak eginiko eskaria, non Babes-txulo etxea margotzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinen kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dute.


Ikusirik kasu honetan udal baimena gauzatzeko, I. jaunak egin behar diren lanen aurrekontu bat aurkezten duela.

Ikusirik aurrekontuan deskribatzen diren lanak hauek direla: aldamioren jartzea, aurrealdearen prestaketa, fatxada iragazgaiztea

Babes-txulo" deritzon etxea, Larraulgo lur ez-hiritargarriaren barruan dago. Etxearen kanpo itxura markatzen duen araudia, " B" dokumentuaren ordenantzetan azaltzen da, bereziki 48º artikuluan.

Eraikinaren kanpo itxura lehengo berdina izanik, inguruko etxeekin bat egiten duenez, eta 48º artikulua betetzen dela ikusirik, udal baimena ematea proposatzen da.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.I.E. jaunak eskatu duen obra baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesatuari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO URRAITZ ETXEAREN IPARRALDEKO FATXADA ERABERRITZEKO BAIMENA ESKAERA, E.A.

Ikusirik E.A.M. jaunak eginiko eskaria, non Urraitz etxearen iparraldeko fatxada eraberritzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinen kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dutela.

Ikusirik kasu honetan udal baimena gauzatzeko, A. jaunak egin behar diren lanen aurrekontu bat aurkezten duela.

Ikusirik aurrekontuan deskribatzen diren lanak hauek direla: aldamioren jartzea, aislamentua, fatxada iragazgaiztea

Urraitz deritzon etxea, Larraulgo lur ez-hiritargarriaren barruan dago. Etxearen kanpo itxura markatzen duen araudia, “ B” dokumentuaren ordenantzetan azaltzen da, bereziki 48º artikuluan.

Eraikinaren kanpo itxura lehengo berdina izanik, inguruko etxeekin bat egiten duenez, eta 48º artikulua betetzen dela ikusirik, udal baimena ematea proposatzen da.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- E.A.M. jaunak eskatu duen obra baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesatuari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

J.M.I. JAUNAK AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik J.M.I. jaunak 2013ko maiatzaren 9an egindako Udalbatzarrean aurkeztutako idatzia, non ondorengo dioen:

“Katillu-Txulo: kultur elkarte eta Zerbitzu publikoa

Krisi egoeran ere zerbitzuen publikotasuna ozen aldarrikatzen den garaiotan, Larraulen bestelako diskurtso bat ere nagusitzen ari da. Zerbitzu publikoa, definizioz, baliabide publikoei ematen den zerbitzua da, suposatzekoa denez, herritar guztientzat baldintza eskuragarrietan ematen dena. Izan liteke hezkuntza, osasuna edo kultura.

Larraulen 12 urte daramatza Katillu-Txulo kultur elkarteak. Katillu-Txulo lokal publikoan dago, Udaletxeko lokalean, eta, datuen arabera, hasierako diru ekarpenaren %80 inguru ere publiko izan zen (Udalarena gehiena 45.000€, hitzarmenez lotua, eta Europako laguntzena bestea 24.000€). Bazkideok 18.000€, % 20 jarri genuen.


Lokal publiko batean, eta ekarpen proportzioak horiek izanik, ez dirudi oso justua denik herritarrek zerbitzu hori baliatzeko 600 euroko sarrera ordaindu behar izatea. Eta ez hori bakarrik, helburuak ere zerbaitetarako daude: ikusteko dago, sarrera baldintza horietan herriko kultur elkarte batek bete ote litzakeen herri-zerbitzu baten jatorrizko helburuak. Gaur egunean, Katillu-Txulok klub pribatutik gehiago du, herriko kultur elkartetik baino, eta horren adibide da bazkide egiteko baldintzak ere aldatu izana, Udalak bere garaian jarritako irizpideak aintzat hartu gabe. Era berean, esan liteke Larraulgo gaztedi osoa ere urteetarako Elkartetik kanpora egotera kondenatua dagoela, elkarteko sarrera eta erabilera baldintzak orain bezala jarraitzen badute.

Bestalde, gaur egunean, Kultur Elkarte horretako giltza duten erdiak baizik ez du botorik elkarteko batzarrean, bazkide laguntzaile baino ez direlako. Horretan ere gutxi du Katillu-Txulok zerbitzu publikotik.

Horretaz gain, egoera honetan Katillu-Txulo elkartearen bideragarritasuna ere ikusteko dago, bere garaian diru publikotik jarritako instalakuntzak berritzea tokatzen denean.

Larraulgo herritar gisa, Udalbatzari zera eskatzen diot:

Katillu-Txulo kultur elkartearen zerbitzu publiko izaerari defenditzeko eta benetan herri-zerbitzu izaera hori izan dezan neurriko sarrera baldintzak finkatzeko, Larraulgo herritar guztiek zerbitzu horretarako sarbidea eta boto eskubidea izan ditzaten. Nire ustez, oraingo 600 eurotako sarrera planteamendua erabat aldatu behar da, eta 100-150 eurotan utzi. Aurreko urteetan sarrera gehiago ordaindu izan duten bazkideekin konponbideren batera iristeko formulak ere aurkitu litezke.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Bestalde, proposatzen dut 16 urtetik gorako gazteentzat bazkietza figura berezi bat sortzea, tutoretza sistema edo beste moduren baten bidez, gaztediak zerbitzu hori baliatzeko aukera izan dezan.

Azkenik, esan behar dut hemen proposatzen ditudanak aurrez Katillu-Txulo elkarteko batzarretan ere proposatu izan ditudala, eta idatziz ere bai, eranskinean ikusten den bezala.

J. M. I.”

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENGOA.- J.M.I. jaunari jakinarazi, Udalbatza honek, 2013ko maiatzaren 9an egindako Udalbatzan, Katilutxulo Elkarteari emandako erantzuna berresten duela, non ondorengoa dioen:

“BIGARRENA: Katilutxulo Elkarteari jakinarazi, 2010urtean Larraulgo Udalarekin sinatutako akordioa berrikusi nahi badu, Katilutxulo Elkarteak, Larraulgo Udalari eskaera egin beharko diola, ondoren, Larraulgo Udalak dagozkion pausoak emango ditu aipaturiko akordioa berrikusteko.”

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZENI 2013 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA


Une honetan, arratsaldeko 19.45 orduetan, Gotzon Jauregi eta Karlos Irazu zinegotziak Udalbatza honetara bertaratzen dira.

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2012ko abenduaren 4ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2013 urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.095 euro direlarik.

Ikusirik aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Tolosaldea Garatzen, 2013urteko ekarpena onestea, hau da, 4.095,00 eurotako diru kopurua eta lehen ekarpena burutu dadin onestea, hau da, 2.47,50 euro.

BIGARRENA: 2013 Udal aurrekontuko partidan nahiko kopurua aurreikustea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

OLATZA BASERRIKO BARATZEAN 3 NEGUTEGI JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.S.

Une honetan, arratsaldeko 19.50 orduetan, Jon Tejeria zinegotzia Udalbatza honetara bertaraten da.

Ikusirik I.S. jaunak eginiko eskaria, non Olatza baratzean daukaten jarduera agroekologikoa bultzatzeko eta hazitegia martxan jartzeko asmotan, 3 negutegi jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2013ko ekainaren 6an Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO OLATZAKO LURRETAN 3 NEGUTEGI EZARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*I.S.U. jaunak, Larraulgo Olatzako lurretan 3 negutegi ezartzeko baimena eskatzen du, hauen kokapena adierazten duen bi argazki aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***


*Aurkeztutako eskarian, Olatzako lurretan dagoen jarduera agroekologikoa bultzatzeko, 30mx5m-ko hiru negutegi jarri nahi direla esaten da.
2º eskuko negutegiak izanik, hauen aurrekontua 1.000€ -koa da.*

2/2006 Lurzoruaren legearen 207 artikulua \tilde{n} puntuaren arabera, negutegien instalazioek hirigintza lizentzia behar dute.

Negutegiak kokatu nahi diren lurak, Larraulgo lur ez hiritargarriaren D20 produkzio zonaldearen barruan daude, bereziki 1 poligonoko 348 eta 2 poligonoko 1 lursailetan. Lurrari eman nahi zaion erabilerak, Lurralde Antolamenduko Gidalerroek eta Larraulgo 45 artikulua markatzen dutenarekin bat egiten du.

Larraulgo arau subsidiarioek bere 71º artikuluan arautzen dituzte honelako eraikinak.

Artículo 71.- Unidades agrícolas especializadas



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Se consideraran como tales las explotaciones agrícolas dedicadas de forma exclusiva a cultivos especializados como la producción hortícola forzada con invernaderos.

Las unidades agrícolas especializadas podrán formar parte de un caserío o establecerse con independencia del mismo.

a) Parcela mínima: 2.500m² cuando se implanten de forma independiente.

b) Separaciones

- Limite de la parcela: 5mts.

- Edificaciones no rurales en otras fincas: 20mts.

c) La construcción del invernadero se hará de forma provisional de modo que si cesa el uso de dichas instalaciones se procederá a su desmantelamiento.

Lursail bakoitzaren azalera, 2.500m² baino handiagoa da.

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak aurrekoarekin bat egiten badute, obra baimena ematea egokia del informatzen dut, beti ere erabilera bukatzean negutegia botatzeko konpromisoa hartzen bada.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.S.U. jaunak eskatu duen obra baimena eskaera ematea, hau da, Larraulgo Olatza lurretan 3 negutegi ezartzeko baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.


BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

OLATZA BASERRIKO LURRETAN DAGOEN PABILOIA EGOKITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.S.

Ikusirik I.S. jaunak eginiko eskaria, non Olatza baratzetan ekoizten dituzten barazki ekologikoak modu egokian gorde ahal izateko, bertan dagoen pabiloia egokitzeke obra baimena eskaera egiten duen.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2013ko ekainaren 6an Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO OLATZA BASERRIKO LURRETAN DAGOEN PABILOIA EGOKITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

I.S.U. jaunak, Larraulgo Olatza baserriaren lurretan dagoen pabiloia egokitzeko baimena eskatzen du, eraikinaren gaur eguneko 2 argazki eta ondorengo egoera adierazten duen marrazki bat aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako eskaerian, Olatzako lurretan ekoizten dituzten barazkiak modu egokian gorde ahal izateko, pabiloian itxitura berriak egin eta beste batzuk zabaldu nahi direla esaten da. Erabiliko diren leihoak birziklatuak izanik, lan hauen aurrekontua 1.031€ izango da.

Larraulgo arauen 14º artikulua eraikinen kanpo itxuren aldaketek udal lizentzia behar dutela esaten du eta 2006-ko lurzorua Legearen 199 artikulua higiezinak kontserbatzeko eta birgaitzeko eginbeharrak arautzen ditu.

Artículo 199. El deber de conservación y rehabilitación

- 1. Los propietarios de terrenos, construcciones, instalaciones y edificios tienen el deber de mantenerlos en condiciones de seguridad, salubridad, ornato público y decoro, realizando los trabajos y las obras precisas para conservarlos o rehabilitarlos, a fin de mantener las condiciones requeridas para la habitabilidad o el uso efectivo.*

Olatzako pabiloia, Larraulgo lur ez hiritargarriaren D20 produkzio zonaldearen barruan kokaturik dago, bereziki 1 poligonoko 348 lursailean.


Hau honela izanik, hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 48º artikulua.

Artículo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones

-Con caracter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Pabiloiak duen erabilera ere, Lurralde Antolamenduko Gidalerroek markatzen dutenarekin bat egiten du. Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.S.U. jaunak eskatu duen baimena eskaera ematea, hau da, Larraulgo Olatza baserriko lurretan dagoen pabiloia egokitzeko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.


BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesatuari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KOLDO JAUREGI	121,00
AITZOL EUSKALTEGIA	64,96
LASURTEGUI	326,70
FONGUI	73,31
URAIN	21,89
GAS NATURAL FENOSA	168,66
GAS NATURAL FENOSA	47,31
GAS NATURAL FENOSA	353,49
GAS NATURAL FENOSA	120,06
GAS NATURAL FENOSA	273,36
GAS NATURAL FENOSA	418,16
GAS NATURAL FENOSA	396,69
GAS NATURAL FENOSA	124,36
GAS NATURAL FENOSA	44,85
REPSOL	481,75
REPSOL	151,43
EUSKALTEL	00,24
MOVISTAR	16,91



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOVISTAR	132,55
MOVISTAR	18,59
MOVISTAR	83,05
MOVISTAR	106,76

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **3.546,08**Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

11.1. “HELDUEN EGOITZA ETA EGUNEKO ZENTROETAKO LANGILEEN LAN HITZARMENAREN ALDE”, MOZIOAREN AZTERKETA.

Batzarkideak aho batez erabakitzen dute LAB Sindikatuak aurkezturiko mozioa mahai gainean uztea “ Helduen egoitza eta eguneko zentroetako langileen lan hitzarmenaren alde”.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.25 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA